

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DONEMILIAGAKO UDALA

Garapenerako lankidetzako proiektuak finantzatzeko udal laguntzen 2019ko deialdia jasotzen duen 2019ko martxoaren 12ko erabakiaren laburpena

BDNS(Identif.): 450225

Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik, argitara ematen da deialdiaren laburpena. Testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai:

Deialdiaren xedea

Garapen bidean dauden herrialdeetako lankidetzak ekintzak finantzatzeko laguntzak ematea, Donemiliagako udalerritik elkartasunezko harremanak sendotzen laguntzeko.

2019an zehar egiten diren garapenerako lankidetzak proiektuak lagundu ahal dira diruz.

Proiektuek irizpide hauek bete beharko dituzte:

– Garapen bidean dauden herrialdeetako herritarrei garatzen laguntzeko eta Donemiliagak dituen elkartasun harremanak sendotzeko garapenerako lankidetzak proiektuak, irabazteko xederik gabeko gobernuz kanpoko erakundeek edo/eta pertsona fisikoek nahiz juridikoek sustatutakoak.

– Erakunde eskatzaileek beren helburuen artean honako hauek izango dituzte: garapenerako lankidetzak jarduerak egitea, irabazteko asmorik eza eta emandako diru sarrerara guztiak garapenerako lankidetzak jardueretan eta gizarte egintzetan erabiltzea.

Onuradunak

Irabazteko xederik gabeko gobernuz kanpoko entitateak eta pertsona fisikoak nahiz juridikoak, baldin eta Donemiliagako herriarekin zerikusi zuzena duten bazkideak edo laguntzaileak badituzte eta deialdi honen xedearekin bat datozen proiektuak garatzen ari badira.

Deialdi honetatik kanpo daude:

Estatuaren, Autonomia Erkidegoaren eta Foru Aldundiaren menpeko erakundeak eta zerbitzuak, eta aurrezki entitateak. Salbuespena: ikastetxeak ez dira baztertzen.

Enpresak eta irabazteko xedea duten bestelako entitate guztiak.

Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrak 13. artikuluan ezartzen duenaren arabera onuradun izatea debekatuta duten entitateak.

Emakume eta gizonak berdintasunean aritzea edota parte hartzea galarazten duten entitateak, ondoko hauek izan ezik: sexu bereko kideez osatuta egonda ere, helburu nagusitzat emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzea edo emakumeen eta gizonen interes eta beharrian espezifikokoak sustatzea duten entitateak.

Oinarri arauak

Donemiliagako Udalbatzak 2019ko martxoaren 12ko bilkuran onetsiak.

Zenbatekoa

Deialdi honi aurre egiteko aurrekontu aplikazioaren zenbakia hauxe da: 231.481.002. Partida horren zuzkidura, gehienez, 10.178,88 euro izango da.

Eskaerak aurkezteko epea

Deialdiaren iragarkia ALHAOn argitaratu ondoko egunetik 2019ko irailaren 6ra arte, 14:00ak arte hain zuzen.

Erdoña, 2019ko apirilaren 15a

Alkatea

DAVID LÓPEZ DE ARBINA RUIZ DE EGINO